



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

---

**ZERBITZU-GUTUNA**  
**JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA**  
**BEREZIA**

---

Hasierako onespena: 2013

---

## AURKIBIDEA

---

1	IDENTIFIKAZIOA.....	3
1.1	ALORRA.....	3
1.2	JARDUERA NAGUSIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.....	3
2	EGINKIZUNA, ESKUMENAK .....	3
2.1	EGINKIZUNA.....	3
2.2	ESKUMENAK.....	3
3	ZERBITZUAK, KONPROMISOAK ETA BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK.....	3
4	ZERBITZU-GUTUNAREN KUDEAKETA.....	5
5	ARAU ETA LEGEEN ZERRENDA.....	6
6	ZERBITZUEN ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	6
7	LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZEA, ALORRAREN ZERBITZUAK HOBETZEKO.....	6
8	IRADOKIZUN- ETA ERREKLAMAZIO-SISTEMA.....	6
9	JENDEARI ARRETA EGITEKO HELBIDEAK ETA ORDUTEGIAK.....	7
10	UNITATE ARDURADUNA.....	7



## **1 IDENTIFIKAZIOA**

---

### **1.1 ALORRA**

Hezkuntza eta Kultura.

### **1.2 JARDUERA NAGUSIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Joaquín Maya Musika Eskola Berezia Arte Irakaskuntza ez-arautuko ikastetxe bat da (ez du ematen titulu ofizialik), eta Iruñean errolatutako 7 urtetik gorakoei musika-ikasketak eskaintzen dizkie, honako hauek barne hartuta: musika-prestakuntza teorikoa eta instrumentala, ikasketa profesionaletarako bideratzea –Kontserbatorioko Gradu Ertainean sartzeko proba prestatuz– eta kultura musikalaria buruzko lkastaro monografikoak –bereziki zuzenduak helduei–.

Hona ikastetxean ematen diren instrumentu-espezialitateak: biolina, biolontxelo, kontrabaxua, pianoa, akordeoia, gitarra, flauta, oboea, klarineta, fagota, txistua, saxofoia, tronpeta, tronboia, tronpa, perkusioa, tuba, bonbardinoa, kantua, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta bateria. Gainera, Musika Hizkuntzari eta Harmoniari buruzko ikastaroak egiten ditu, eta baditu askotariko instrumentu- eta koru-taldeak zein ganbera-musikakoak.

## **2 EGINKIZUNA, ESKUMENAK**

---

### **2.1 EGINKIZUNA**

Joaquín Maya Musika Eskolak hauxe du eginkizun:

- Jendeak musika ezagutu eta estimatu dezan sustatzea, entzute-sentsibilitatea haren parametro guztietan garatuz (melodia, erritmoa eta adierazkortasuna).
- Nor bere kabuz eta taldeka aritzeko bideratutako instrumentu-irakaskuntza eskaintzea.
- Musika-irakaskuntza ematea, instrumentuak jotzearen osagarri.
- Talentu bereziko ikasleak bideratu eta prestatzea, prestakuntza akademikoa kontserbatorio profesionaletan lantzen jarrai dezaten.

### **2.2 ESKUMENAK**

Hezkuntza eta Kultura Alorraren eskumenak jasota daude Iruñeko Udalaren Administrazioa Antolatzeko 2011ko Ordenantzan (2011ko 178. NAO, irailaren 8koa).

## **3 ZERBITZUAK, KONPROMISOAK ETA BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEAK**

---



Zerbitzuak	Konpromisoak	Betetze-mailaren adierazleak
<b>Koordinazio eta Kudeaketa Zerbitzuak:</b>		
<b>Matrikulazio-kanpainaren kudeaketa:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Argibideak</li> <li>• Ohiko ikastaroen kudeaketa Aurretiko izen-ematea Matrikula</li> <li>• Ikastaro berezien kudeaketa Aurretiko izen-ematea Onartuen zerrenda - Matrikula</li> <li>• Matrikulak itzultzeko eskaerak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kudeaketa-bide bat eskaintzea matrikulazio-kanpainarako aurre-inskripziorako prozesu arin eta garden baten bitartez, hainbat bide erabilita (aurrez aurrekoa, online...), eta gero, postuak zozketa publiko baten bidez banatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat aurre-inskripzio, guztira</li> <li>• Aurre-inskripzioen ehunekoa, bideen arabera</li> <li>• Zenbat matrikula berri</li> <li>• Zenbat matrikula (zenbat ikaslek jarraitzen duten Eskolan ikasten)</li> <li>• Matrikula-ukoen ehunekoa: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tasak itzultzeko eskatuta</li> <li>- Tasak itzultzeko eskatu gabe.</li> </ul> </li> </ul>
	Instrumentu hauen eskaintza bermatuko da: akordeoia, bonbardinoa, klarinetea, kontrabaxua, fagota, zeharkako txirula, gitarra, oboea, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta, tuba, txistua, biola, biolina, biolontxelo, gitarra, baxu elektrikoa, bateria; bai eta kantua ere.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat ikasle, maila edo irakasgai bakoitzeko</li> <li>• Lehen zikloa bukatu duten ikasleen ehunekoa</li> <li>• Bigarren zikloa bukatu duten ikasleen ehunekoa</li> <li>• Kontserbatoriora igaro diren ikasleen ehunekoa</li> <li>• Irakasgaia gainditu ez dutenen ehunekoa</li> <li>• Ohorezko matrikula lortu dutenen ehunekoa</li> </ul>
<b>Ikastetxeko plana antolatu eta kudeatzea:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen Zikloa: Oinarrizko musika-prestakuntza (Hastapen-maila, 1., 2., 3. eta 4.a), Instrumentua, Musika Hizkuntza, Koru Taldea eta Instrumentu Taldea.</li> <li>• Bigarren Zikloa: Instrumentu- eta talde-hobekuntza (Hastapena, 5., 6., 7. eta 8.a), Instrumentua, Koru Taldea eta Instrumentu Taldea.</li> </ul>	Instrumentu-talde hauei buruzko ikastaroak eskainiko dira: orkestrak, bandak, akordeoi-taldeak, gitarrak, txistu-taldeak, saxofoi-taldeak, piano-taldeak, musika modernoko konboak, big bandak, koru-taldeak eta ganbera-musika.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat talde</li> </ul>
<b>Jarduera osagarriak antolatzea eskolan matrikulaturik dauden ikasleentzat:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleen kontzertuak (bakarlariak eta ganbera-musika).</li> <li>• Koru-taldeen eta instrumentu-</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtean gutxienez ere ikasleendako hiru kontzertu pedagogiko antolatuko dira</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat ikasle-kontzertu, jendeari irekiak</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtean gutxienez ere jendearendako zazpi ikasle-kontzertu antolatuko dira</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat ikasle-kontzertu, jendeari irekiak</li> </ul>



## ZERBITZU-GUTUNA JOAQUIN MAYA MUSIKA ESKOLA

2012. urtea

taldeen kontzertuak <ul style="list-style-type: none"> <li>Entzunaldiak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urtean lau kontzertu antolatuko dira (udazkenean, eguberrian, udaberrian eta ikasturte-amaieran).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zenbat kontzertu berezi</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gutxienez ere entzunaldi bat antolatuko da instrumentu bakoitzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zenbat entzunaldi</li> </ul>
<b>Ikastetxeko planetik kanpoko prestakuntza eta jarduerak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastaro monografikoak</li> <li>Instrumentu-taldeak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gutxienez bi ikastaro monografiko eskainiko dira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>Entzunaldi gidatuak</li> <li>Musikaren historia</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zenbat ikastaro monografiko eskaini diren.</li> <li>Ikastaro monografikoetan zenbat ordu eskaini diren.</li> <li>Zenbat ikasle, ikastaro monografikoetan</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Instrumentu- eta koru-taldeetan zenbait ikaspostu eskainiko dira (Eskolako Ikasketa Planari atxikiak ez dauden ikasleentzat)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zenbat talde (Eskolako Ikasketa Planari atxikia ez dauden ikasleentzat)</li> <li>Zenbat ikasle, taldeetan (Eskolako Ikasketa Planari atxikia ez dauden ikasleentzat)</li> </ul>
<b>Informazio eta Aholkularitza Zerbitzuak:</b>		
<b>Berriazko informazio-eskaintza honi buruz:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastaro ohikoak eta irekiak</li> <li>Instrumentuak eta instrumentu-taldeak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolan aurrez aurre eta telefonoz emanen da informazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zenbat arreta telefonoz, eta zenbat, aurrez aurre</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Webgunean informazio osoa egonen da eskura</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zenbat bisita izan diren webgunean</li> </ul>
<b>Entsegu- eta ikasketa-aretoak eta instrumentuak lagatzeko zerbitzuak:</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolako ikasleen erabilerak.</li> <li>Eskolan matrikulaturik ez dauden pertsonen eskaerak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskaera guztiak zazpi egunean edo epe laburrago batean ebatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zazpi egunean edo epe laburragoan ebatzitako eskaeren ehunekoak.</li> </ul>

#### 4 ZERBITZU-GUTUNAREN KUDEAKETA

Hezkuntza eta Kultura Alorreko eta Musika Eskolako zuzendaritzen ardura da behar diren neurriak hartzea konpromisoak gauzatzeko, eta, era berean, adierazleak urtean nola bilakatzen diren jarraitzeko eta kontrolatzeko. Alorrak aukeratzen duen jarraipen-sistema edozein den ere, gutxienez honako jarduketa hauek egingen dira:

- Adierazleen bilakaerari jarraitzeko bilerak, sei hilez behin.
- Urteko Auditoretzak, konpromisoen betetze-maila bere osoan edo zati batean egiaztatzeko, adierazleen jarraipena ikusteko eta arduradunek urte osoan zehaztutako ekintzen kudeaketa egiaztatzeko.

Hori guztia gauzatu da *Zerbitzu-Gutunen kudeaketarako eta jarraipenerako Gidan* ezarritakoaren arabera.



## 5 ARAU ETA LEGEEN ZERRENDA

- Musika Eskolak sortu eta mantentzea arautzen duen abenduaren 21eko 421/1992 Foru Dekretua.
- Joaquín Maya Musika Eskolaren jarduna arautzen duen erregelamendua.
- Ordenantza Fiskalak eta Prezio publikoen Arau erregulatzailerak. 2012 7. araua (Joaquin Maya Udaleko Musika Eskolak ematen dituen ikasketetan izena eman eta parte hartzea).
- Euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen Ordenantza, Udalbatzaren osoko bilkurak 2003ko irailaren 4an onetsia.
- Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1997ko abuztuaren 29an onetsitako ikastetxe-plana.
- 512/2012 Ebazpena, 168. NAO, 2012-8-27

## 6 ZERBITZUEN ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak dira hala ***Iruñeko herritarrek beren Udal Administrazioaren aurrean dituzten Eskubide eta Betebeharren Gutunean bilduta daudenak*** nola aurreko idatzi-zatian azaldutako arau indardunetatik datozenak.

## 7 LANKIDETZA ETA PARTE-HARTZEA, ALORRAREN ZERBITZUAK HOBETZEKO

Iruñeko Udalak hainbat tresna erabiltzen ditu, Udalak berak ematen dituen zerbitzuen gainean bukaerako erabiltzaileek zer balioespen eta zer iritzi duten jakitea sustatzeko. Hona hemen tresnak:

- Gogobetetze-inkestak, arreta-guneetan eta webgunean ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)) herritarren eskura jarritakoak, Udalak ematen dituen zerbitzuen gainean herritarrek zer-nolako gogobetetze-maila duten jakiteko.
- Sistema bat ezarria dago kexa edo iradokizun bat egiteko, dela 010 telefonoaren bidez, dela [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es) webgunearen bidez, dela aurrez aurre, Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan (HLZ), jendaurreko ordutegian.

## 8 IRADOKIZUN- ETA ERREKLAMAZIO-SISTEMA

Iruñeko Udalak Oharrak, Kexak eta Iradokizunak udal-zerbitzuetan aurkezteko sistema bat jarri du erabiltzaileen eskura. Hona hemen zer bide dauden eskura:

<b>Aurrez aurrekoa</b>	<b>Erregistro Orokorra / Herritarrendako Laguntza Bulegoa (Kondestablearen Jauregia,</b> Kale Nagusia, 2 – 31001 – Iruña)
	Iruñeko Udalaren erregistro osagarriak (ikusi <a href="http://www.pamplona.es">www.pamplona.es</a> )
<b>Telefonoz</b>	☎ 010 (Iruña) ☎ 948 420 100 (Iruñeaz kanpotik deituz gero)
<b>Bide</b>	<a href="#">Iradokizun-postontzia</a> eta <a href="#">Erregistro Elektronikoa</a> , Iruñeko Udalaren webgunean



<b>telematikoa</b>	kokatua: <a href="http://www.pamplona.es">www.pamplona.es</a>
--------------------	---

Irakozkizuna edo erreklamazioa zer bidetatik jaso den, bide berbera erabiliko da haiei erantzuteko, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean. Epe horretan erantzun osorik ematerik ez badago, herritarrari jakinaraziko zaio zer jarduketa egiten ari diren eta zer datatan aurrekusia dagoen erantzutea.

Hori guztia eginen da, Udalaren Ohar, Kexa eta Irakozkizunak kudeatzeko Prozeduran ezarritakoarekin bat.

## 9 JENDEARI ARRETA EGITEKO HELBIDEAK ETA ORDUTEGIAK

<b>Joaquín Maya Musika Eskola</b>		
<b>Helbidea</b>	Chinchilla jeneralaren k. 6, behea 31002 Iruña.	
<b>Ordutegia</b>	Aurrez aurrekoa	<b>Bulegoak:</b> - Astelehenetik ostiralera (09:00 – 14:00). - Astelehen eta asteazkenetan (16:00 – 18:00). - Uda: uztailaren 6tik 25era bitarte, itxita, eta uztailaren 26tik aurrera, goizean bakarrik irekita. <b>Eskola:</b> - Astelehenetik ostiralera (08:00 – 22:00). - Larunbatetan (10:00 – 14:00).
	Telefonoz ☎ 010 (Iruña) ☎ 948 420100 (Iruñeaz kanpotik deituz gero)	Astelehenetik ostiralera (8:00 – 19:00). Larunbatetan (09:30 – 13:30). Sanferminetan: Egunero (09:30 – 13:30). Udako gainerako asteetan (07/15etik 09/11ra): Astelehenetik ostiralera (08:00 – 15:00).
<b>Harremanetarako:</b>	Bulegoetako telefonoa	☎ 948-420985 / 948-420986
	Bulegoetako faxa	☎ 948-420987
	Helbide elektronikoa	✉ <a href="mailto:escuelamusica@pamplona.es">escuelamusica@pamplona.es</a>
	Webgunean	🌐 <a href="http://www.pamplona.es/escuelademusica">http://www.pamplona.es/escuelademusica</a>

## 10 UNIDADE ARDURADUNA

### Hezkuntza eta Kultura Alorreko Zuzendaritza

Descalzos kalea, 72 31001 Iruña  
 ☎ 948-420960 ☎ 948-420550  
 ✉ [areaeducacion@pamplona.es](mailto:areaeducacion@pamplona.es), 🌐 [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)